

ERRETRETA

Hona erretreta eskuratzeko segitu behar den urraspidea:

> KALKULUA

- Euskadiko gizarte segurantzaren zuzendaritzari erretreta pentsio* eskaera egiten diozu, salbu ez baduzu sekula Espainiar** estatuan lan egin. Eskaera egitean beste herrialde batean erretretarentzat kotizatu duzula adierazi behar duzu. Gizarte segurantzaren zerbitzuak lan egin duzun herrialde guztietan erretretarako kotizatu duzun guztiaren bilduma egingo du
- Estatu bakoitzak erretretarako eskubiderik ba ote duzun egiaztatuko du, kotizatu duzun garaian eta bertako legeen ikuspegitik:

Baldin eta...			Hau jasoko duzu
EBko tasa baliokidea: erretreta organismo bakoitzak herrialdean erretretarako osoki kotizatu bazenu bezala kalkulatu du zenbat ordaindu beharko lizukeen (« zenbateko teorikoa »). Gero zenbateko hori egiazki lan egin eta kotizatu duzun denboraren arabera zuzenduko du (kotizazio denboraren arabera prestazioa).	>	Tasa nazionala: zure herrialdean erretretarako behar adina kotizatu baduzu, atzerrikoaren beharrik izan gabe, erretreta organismoak zure prestazio nazionala kalkulatu du, zure kotizazioen arabera (« prestazio autonomoa »).	EBko tasa baliokidea
	<		Tasa nazionala

* <http://www.seg-social.es/prdi00/groups/public/documents/binario/34890.pdf>

** http://www.seg-social.es/Internet_1/Oficinas/Listado/index.htm?loc=3&Comu=N&Cod=31&Org=S

ERRETRETA

> KALKULUA

Euskadin bizi naiz
eta Akitania-Berrian
lan egiten dut

Adibidez: Organismo frantsesa: <u>Zenbateko teorikoa:</u> Xabierrek jasoko lukeen pentsioa Frantzian 35 urtez lan egin izan balu (ad: 1600 euro). <u>Araberakoa:</u> Frantzian egindako urteen araberakoa: $(1600 \cdot 15) / 35 = 685.72\text{€}$ Espainiako organismoa: Xabierrek jasoko lukeen pentsioa Espainian 35 urtez lan egin izan balu (ad: 1300 euro) <u>Araberakoa:</u> Espainian egindako urteen araberakoa: $(1300 \cdot 20) / 35 = 742,86\text{€}$ EBko tasa baliokide orokorra: $685.72 + 742,86 = 1428,58 \text{ €}$	Adibidez: Organismo frantsesa: <u>Zenbateko nazionala:</u> Xabierrek Akitania-Berrian lan egin duen 15 urteei dagokiena (ad: 600) Espainiako organismoa: Xabierrek Euskadi/Nafarroan lan egin duen 20 urteei dagokiena (ad: 800) Tasa nazional orokorra: $600 + 800 = 1400\text{€}$	Adibidez: Xabierrek 1428,58€ko pentsioa jasoko du (EBko tasa baliokidea)..
--	--	---

- Erretretarako eskubidea bai, baina herrialde bakoitzak berean kotizatu duzun heinekoa ordainduko dizu (nazio pentsioaren kalkulua eta batasuneko pentsioaren kalkulua; orduan Estatu bakoitzeko erakundeak langilearen aldekoena ordainduko dio, hots biak erkatuta -nazionala eta batasuneko-zenbateko handiena ematen duena).

ERRETRETA

> KALKULUA

Euskadin :

Erretreta arrunta:

- Zenbatekoa: kalkulu oinarriaren %50, kotizatu den 15 urteentzat. Ehuneko progresiboki emendatzen da %100era iritsi arte

Kalkulu oinarria

2013ko urtarrilaren 1ean lehengo legedia aplikatzen zitzaien pertsonak	2013ko urtarrilaren 1etik aurrera	2022tik aurrera
Erretreta eskubideen aurreko 180 hilabeteetan zure kotizazioen oinarria 210ez zatitzen da.	Hilabete kopurua urtero 12 hilabetez emendatuko da, 2022an 300era iristeko	Erretreta eskubideen aurreko 300 hilabeteetan zure kotizazioen oinarria 350ez zatitzen da.

- 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, pentsiodun berriei iraunkortasun faktore bat aplikatuko zaie (pentsioen zenbatekoa bizi iraupenari eta hazkundeari indexatuz). 2027 arteko trantsizio garai bat ezarriko da.
- Pentsioak ezin ditu hilabeteko 2573.70€ gainditu* (hots, 36 031.80€ urtean) eta 14 hilabete dauzka. Hileroko zenbateko minimoak** ere bermatuta daude

* http://www.seg-social.es/Internet_7/Pensionistas/Revalorizacion/Importesmaximos2007/index.htm

** http://www.seg-social.es/Internet_7/Pensionistas/Revalorizacion/Cuantiasminimas2007/index.htm

ERRETRETA

> KALKULUA

Euskadin bizi naiz
eta Akitania-Berrian
lan egiten dut

AKITANIA-BERRIAN

Erretreta pentsioa likidatzeko gutxieneko adina 60 urtetan da 1951ko uztailaren 1a baino lehen sortu direnentzat. Adina urtero 5 hilabetez emendatzen da. Honela, 1955etik aurrera sortu direnek 62 urtekoa izanen dute erretretarako adina.

Frantziako erretreta sistema honela osatua da:

- Oinarrizko segurantzaz, sistema orokorrekoa edo antzeko sistema batena (Laborantza, Erregimen bereziak, Autonomoak). Akitania-Berrian CARSAT (Caisse d'Assurance Retraite et de Santé Au Travail) erakundea da oinarrizko erretretaz arduratzen dena. *Bere kalkulua egiteko, CARSAT-ek oinarrizko soldata (1947az geroztik sortu direnentzat: kotizatu diren 25 urte hoberenetako urteko batezbesteko soldata) eta Frantzian kotizatu diren hiruhilekoak kontuan hartzen ditu. Erretretarako adinera iritsi eta gutxieneko hiruhileko kopurua kotizatu baduzu (160 eta 172 hiruhileko sortze dataren arabera) erretreta osoa jasoko duzu (%50).*
- Derrigorrezko erretreta segurantzaz osagarriak. Erretreta segurantzaz osagarriak ARRCO (Association des Régimes de Retraite Complémentaire) eta AGIRC (Association des Institutions de Retraite des Cadres) erakundeek kudeatzen dituzte. Urtero, soldata edo irabazien arabera kotizazioak puntu bilakatzen dira. Erretreta puntuen balioa urtero eguneratzen da. Erretreta pentsioa jasotzen hasten garelarik dauzkagun puntuak puntu balioarekin biderkatzen ditugu.
 - AGIRC-eko puntuen balioa 2017ko azaroaren 1ean = 0.4352€
 - ARRCO-ko puntuen balioa 2017ko azaroaren 1ean = 1.2513€

Pentsioaren zenbatekoa zure egoera profesionalaren arabera hobetua izan daiteke.

2018ko abuztua